Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko martxoaren 20a, asteazkena — 54 — Miércoles, a 20 de marzo de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Kultur jarduerak burutzeko Gipuzkoako udal, udal elkarte edo udal entitateei zuzentzen diren diru laguntzen 2019ko deialdia (Tokiko).*

Diputatuen Kontseiluak, 2019ko martxoaren 5ean egindako batzarraldian, besteak beste, honako erabaki hau hartu du:

2018ko otsailaren 27ko Diputatuen Kontseiluko erabakiaren bitartez (51. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2018ko martxoaren 13an), Kultura Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren diru laguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren.

3. oinarri orokorrak jasotzen du diru laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

Aipatutako laguntzak Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bileran onartutako 2017-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren barne daude.

Erabaki honen bidez, Kultur jarduerak eta proiektuak burutzeko Gipuzkoako udal, udal elkarte edo udal entitateei zuzendutako diru laguntzen 2019ko deialdia onartzen da (Tokiko).

Horiek horrela, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea 2019. ekitaldiko diru laguntzen deialdia egitea, Kultur jarduerak burutzeko Gipuzkoako udal, udal elkarte edo udal entitateei zuzendutako diru laguntzak emateko (Tokiko).

Deialdi hori erabaki honen eranskin gisa jaso da.

*Bigarren.* Deialdi horri aurre egiteko hirurehun mila (300.000) euroko gastua baimentzea aurrekontu xedapen honekin:

| *Aurrekontu saila* | *Zenbatekoak (€)* |
|---|---|
| 1.0210.130.461.01.01.2019 | 180.000,00 |
| 5.0210.130.461.01.01.2020 | 120.000,00 |

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

*Convocatoria 2019 de subvenciones para la realización de actividades culturales organizadas por los ayuntamientos, agrupaciones de ayuntamientos y entidades municipales de Gipuzkoa (Tokiko).*

El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 5 de marzo de 2019 ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

Por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral, de 27 de febrero de 2018, (Boletín Oficial de Gipuzkoa 51 del 13 de marzo de 2018) se aprobaron las bases reguladoras de la concesión de subvenciones con cargo a programas gestionados por la Dirección General de Cultura.

La base general 3 establece que el procedimiento para la concesión de subvenciones se iniciará de oficio mediante la convocatoria anual que será publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Dichas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES) aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de julio de 2017.

Mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria para 2019 para la concesión de subvenciones para la realización de actividades culturales organizadas por los ayuntamientos, agrupaciones de ayuntamientos y entidades municipales de Gipuzkoa (Tokiko).

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2019 destinada a la concesión de subvenciones para la realización de actividades culturales organizadas por ayuntamientos, agrupaciones de ayuntamientos y entidades municipales de Gipuzkoa (Tokiko).

Dicha convocatoria se adjunta como anexo al presente acuerdo.

*Segundo.* Autorizar un gasto de trescientos mil (300.000) euros con la siguiente imputación presupuestaria:

| *Partida presupuestaria* | *Importes (€)* |
|---|---|
| 1.0210.130.461.01.01.2019 | 180.000,00 |
| 5.0210.130.461.01.01.2020 | 120.000,00 |

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del

EK\CV GAO-I-2019-01610

Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2019ko martxoaren 11.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (1610)

ERANSKINA

*Kultur jarduerak burutzeko Gipuzkoako udal, udal elkarte edo udal entitateei zuzentzen diren diru laguntzen 2019ko deialdia (Tokiko).*

*Lehena. Oinarri arautzaileak.*

Kultur jarduerak burutzeko Gipuzkoako udal, udal elkarte edo udal entitateei zuzendutako diru laguntzak (Tokiko) ematea arautzen duten oinarriak, 2018ko otsailaren 27ko Diputatuen kontseiluko akordio bitartez onartutakoak dira eta 2018ko martxoaren 13ko 51. zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoak.

*Bigarrena. Eskatzaileak, diruz lagungarri diren jarduerak eta baldintzak.*

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako udal, udal elkarte edo udal entitateek baldin eta udal maila gainditzen duten kultur jarduerak antolatzen badituzte. Kultur jarduera horiek izan daitezke artea, historia, ondarea edota beste kultur arlo baten txertatzen diren jaialdiak, jardunaldiak, lehiaketak, erakusketak eta urteurrenak, eta beren kalitate eta interesagatik Gipuzkoako Lurraldeko kultur eskaintzarentzat emaitza esanguratsua suposatu behar dute.

Laguntza hauen helburu nagusia lurraldeko kultur eskaintzan oreka lortzea da.

Jarduerak ekonomikoki bideragarriak izan behar dira. Bideragarritasun hori diru sarrerak eta gastuak jasoko dituen aurrekontu orekatuaren bitartez frogatu beharko da, hau da, dirusarreren eta gastuen kopuruak berdinak izango dira, eta dirusarreren atalean Kultura Zuzendaritza Nagusiari eskatzen zaiona zehaztu beharko da.

10.000 biztanle arteko udalerrietako udalek eskaera bakar bat egin ahal izango dute, eta gastuen aurrekontua 5.000 euro baino gehiagokoa izango da.

10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietako udalek bi eskaera aurkeztu ahal izango dituzte, eta bakoitzaren gastuen aurrekontua 10.000 euro baino gehiagokoa izango da.

20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek hiru eskaera aurkeztu ahal izango dituzte, eta bakoitzaren gastuen aurrekontua 10.000 euro baino gehiagokoa izango da.

Udal elkarteen kasuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 Foru Arauak 10. artikuluan diona jarraituz, bai eskaeran bai diru laguntza emateko ebazpenean berariaz adieraziko da zein exekuzio konpromiso hartu dituen elkarteko kide bakoitzak eta zein den horietako bakoitzagatik aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa, beraiek ere pertsona onuraduntzat hartuko baitira. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena.

Halaber, zenbat udal elkartuta, hainbat ardurapeko aitorpen aurkeztu beharko dira: Udal bakoitzak berea.

Diru laguntzaren xede diren jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barnean burutu beharko dira, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de marzo de 2019.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (1610)

ANEXO

*Convocatoria 2019 de subvenciones para la realización de actividades culturales organizadas por los ayuntamientos, agrupaciones de ayuntamientos y entidades municipales de Gipuzkoa (Tokiko).*

*Primero. Bases reguladoras.*

Las bases reguladoras de las subvenciones para la realización de actividades culturales organizadas por los ayuntamientos de Gipuzkoa, (Tokiko) son las aprobadas por Consejo de Gobierno Foral, de fecha 27 de febrero de 2018, y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 51, de 13 de marzo de 2018.

*Segundo. Solicitantes, actividades subvencionables y requisitos.*

Podrán optar a estas ayudas los ayuntamientos guipuzcoanos, agrupaciones de ayuntamientos o entidades municipales de Gipuzkoa, que organicen actividades culturales que superen el ámbito municipal, y supongan, por su calidad e interés, una aportación significativa a la oferta cultural del territorio de Gipuzkoa, tales como festivales, ciclos, concursos, exposiciones y efemérides de carácter artístico, histórico, patrimonial u otras áreas de temática cultural.

El objetivo principal de estas ayudas es la consecución de un equilibrio en la oferta cultural del territorio.

Las actividades deberán ser viables económicamente. Dicha viabilidad deberá acreditarse por medio de un presupuesto de gastos e ingresos equilibrado, es decir, la cantidad de ingresos y la de gastos serán equivalentes, precisando en el apartado de ingresos la cantidad solicitada a la Dirección General de Cultura.

Los ayuntamientos de municipios hasta 10.000 habitantes podrán presentar una única solicitud cuyo presupuesto de gasto deberá ser superior a 5.000 euros.

Los ayuntamientos de municipios entre 10.000 y 20.000 habitantes podrán presentar hasta dos solicitudes cuyos presupuestos de gasto deberán ser superiores a 10.000 euros.

Los ayuntamientos de municipios de más de 20.000 habitantes podrán presentar hasta tres solicitudes cuyos presupuestos de gastos deberán ser superiores a 10.000 euros.

Cuando se trate de agrupaciones de ayuntamientos, en cumplimiento del artículo 10 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, deberán hacerse constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrá igualmente la consideración de persona beneficiaria. En cualquier caso, deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación.

Además, deberán presentar tantas declaraciones responsables como ayuntamientos integrantes de la agrupación.

Las actividades objeto de la subvención, deberán realizarse dentro del año natural que establece la convocatoria, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre.

EK\CV GAO-I-2019-01610

*Hirugarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.*

2019. urtean, dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea 28 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epea bukatzen den eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun balioduna hartuko da azkeneko eguntzat.

Eskaerak, Kultura Zuzendaritza Nagusiak deialdi bakoitzean emandako ereduaren arabera, eta ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztu ahalko da, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus helbidean) barrena, diru laguntzen atarian sartu eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarri den berariazko datu-orria erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria Internet bidez aurkezterakoan Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14.2 eta 68.4 artikuluak ezarritakoari jarraituz.

*Laugarrena. Dokumentazioa.*

Diru laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak dira, oro har, 3.3 oinarri orokorrean xedatutakoak.

*Bosgarrena. Laguntzen gehieneko zenbatekoa.*

Oro har, diru laguntzaren zenbatekoa ez da izango diruz lagundutako egitasmoa garatzeko aurreikusten den gastuaren % 50 baino handiagoa.

Proiektu guztiek aurkeztutako aurrekontuaren % 50 gutxienez beste finantzabide batzuekin estali beharko dute, beste edozein iturritatik lortutakoa, publikoa nahiz pribatua.

Gehienera 20.000 euroko diru laguntzak izango dira.

*Seigarrena. Diru laguntza ordaintzea.*

Oro har, diru laguntzak ordainduko dira diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala zuritu ostean, 11. oinarri orokorrean ezarritakoari jarraikiz zuritu ere.

Dena den, egiaztatzen bada diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa dela, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira diru laguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan.

*Zazpigarrena. Laguntzen finantzazioa eta aurrekontua.*

Baimendutako gastua, hirurehun mila (300.000) eurokoa da, aurrekontu xedapen honekin:

| *Aurrekontu saila* | *Zenbatekoak (€)* |
|---|---|
| 1.0210.130.461.01.01.2019 | 180.000,00 |
| 5.0210.130.461.01.01.2020 | 120.000,00 |

*Zortzigarrena. Jakinarazpena.*

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei, Administrazio Publikoen prozedura administratibo komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikuluan arabera; betiere, emandako diru laguntzak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webgunean argitaratzea baztertu gabe.

*Bederatzigarrena. Araudi aplikagarria.*

Bere oinarri arautzaileetan ezarritakoaz gain, laguntza hauek Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak eta hori garatzeko onartutako erregelamenduak (2008ko apirilaren 29ko 24/08 Foru Dekretuak) arautuko dituzte.

*Hamargarrena. Eskaera eredua.*

*Tercero. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

En el año 2019, el plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas será de 28 días naturales a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Si la finalización del plazo recayera en sábado, domingo o inhábil se trasladará al día hábil inmediatamente siguiente.

Las solicitudes, según modelo que facilite la Dirección General de Cultura en cada convocatoria, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se podrán presentar, vía Internet a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria vía Internet se realizará en los términos previstos en el artículo 14.2 y 68.4 de la ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*Cuarto. Documentación.*

La documentación que deberá acompañarse a la solicitud de subvención será la que se indica en la base general 3.3.

*Quinto. Límites máximos de las ayudas.*

Como criterio general, el importe máximo de subvención será del 50 % del presupuesto de los gastos presentados.

Todos los proyectos deberán contar con una financiación mínima del 50 % del presupuesto presentado, proveniente de otras fuentes de financiación, pública o privada.

Ninguna subvención superará el importe de 20.000 €.

*Sexto. Abono de la subvención.*

Con carácter general, las subvenciones se abonarán a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base general 11.ª

No obstante lo anterior, y previa acreditación de la necesidad de financiación para llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, podrán realizarse pagos anticipados en la forma en que se determine en la correspondiente resolución de concesión.

*Séptimo. Financiación y presupuesto de las ayudas.*

El gasto autorizado es de trescientos mil (300.000) euros con la siguiente imputación presupuestaria:

| *Partida presupuestaria* | *Importes (€)* |
|---|---|
| 1.0210.130.461.01.01.2019 | 180.000,0. |
| 5.0210.130.461.01.01.2020 | 120.000,00 |

*Octavo. Notificación.*

La resolución del procedimiento se notificará individualmente a las personas o entidades interesadas de conformidad con lo previsto en el 41.1 de la la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas Todo ello, sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web de la Dirección General de Cultura.

*Noveno. Normativa aplicable.*

Además de por lo dispuesto en sus bases reguladoras, estas ayudas se regirán por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba su Reglamento de desarrollo.

*Décimo. Modelo de solicitud.*

EK\CV GAO-I-2019-01610

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskatzailearen izena<br>Nombre solicitante | | H/G | | M/E | |
| IFZ/IFK<br>NIF/CIF | | | | | |
| Helbidea<br>Domicilio | | | | | |
| Posta kodea<br>Código postal | | Herria<br>Municipio | | Lurralde Historikoa/<br>Probintzia<br>Territorio Histórico/<br>Provincia | |
| Telefonoak<br>Teléfonos | | Faxa<br>Fax | | | |
| Posta elek.<br>Email: | | | | | |

HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

| | |
|---|---|
| Pertsonaren izena<br>Nombre de la persona | |
| Helbidea<br>Domicilio | Posta kodea<br>Código postal |
| Herria<br>Municipio | Lurralde Historikoa / Probintzia<br>Territorio Histórico / Provincia |
| Telefonoa<br>Teléfono | Faxa<br>Fax |
| Posta elek.<br>Email: | |
| IFK/CIF | |

PROIEKTUAREN IZENA ETA 4-5 LERROKO LABURPENA/ TÍTULO DEL PROYECTO. RESUMEN 4-5 LINEAS

| | |
|---|---|
| Proiektuaren izena<br>Título del proyecto | |
| Laburpena/ Resumen | |

ERAGITEKO GAKO EDO ZIURTAGIRI DIGITALAREN IDENTIFIKAZIOKO DATUAK
DATOS IDENTIFICACIÓN CLAVE OPERATIVA O CERTIFICADO DIGITAL

| | |
|---|---|
| Izena<br>Nombre | IFZ/IFK<br>NIF |
| Norbere izena/Nombre propio | |
| GIPUZKOATARIAren bidezko ordezkaritza / Representación GIPUZKOATARIA | |
| Ustezko ordezkaritza / Representación presunta: | |

EK\CV GAO-I-2019-01610

Konkurrentzia deklarazioa
Declaración de concurrencia

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean./
Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Bestalde, 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalen babeserakoa, xedaturikoaren arabera, inprimaki honetan nik adierazitako datu pertsonalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzaren aurrean diru laguntza bideratzeko erabili ditzan baimentzen dut./

Además, de conformidad con la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y por medio de este documento, autorizo, y presto mi consentimiento para el tratamiento de mis datos personales, para que puedan utilizarse ante la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa a los efectos de tramitar la subvención.

Komunikazioak onartzea
Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

| Erakunde edo pertsona eskatzaileak baimena ematen dio diru laguntzaren departamentu kudeatzaileari organo lagatzailearen ondorengo datuen kontsulta egin dezan: / La entidad o persona solicitante da su consentimiento al departamento foral gestor de la subvención para que consulte del órgano cedente los datos de: | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Zerga betebeharrak egunean dituela / Cumplimiento de las obligaciones tributarias : | | Bai / Sí | | Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado |
| Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela / Cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social | | Bai / Sí | | Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado |

__________________________, 201___ko ____________________ (a)ren ______(a)

En _______________________________ a ______ de _________________ de 201__

Izptua. (Sinadura eta zigilua)
Fdo.: (Firma y sello)

EK\CV GAO-I-2019-01610